BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4949

EBAZPENA, 2011ko irailaren 16koa, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariarena, Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari akreditazioa berritzekoa.

Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoak akreditazioa berritzeko egindako eskaera jaso da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Komite Etikoen akreditazioak arautzen dituen Osasuneko sailburuaren 1994ko irailaren 28ko Aginduaren (urriaren 24ko EHAA, 202. zk.) 2. eta 6. artikuluetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa sortzeko 2005eko otsailaren 11ko 3/2005 Dekretuan eta sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak arautzen dituen 2004ko otsailaren 6ko 223/2004 Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan izanik, eta Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen 2009ko azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuaren 13. artikuluak esleitutako funtzioak betez, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Akreditazioa berritzea Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari.

Bigarrena.– Batzorde horretako kidetzat berrestea honako hauek:

– Presidentea:

Alberto Alonso Ruiz jauna, Medikuntza eta Kirurgia orokorrean lizentziatua.

– Presidenteordea:

José Ignacio Pijoán Zubizarreta jauna, Medikuntza eta Kirurgia orokorrean lizentziatua.

– Idazkaria:

– Amaia Martínez Galarza andrea, Erizaintzako unibertsitate-diplomaduna.

– Batzordekidea:

Itziar Alfonso Farnós andrea, farmakologo klinikoa.

– Batzordekidea:

Adolfo González Calles jauna, Irakasle-ikasketetako unibertsitate-diplomaduna.

– Batzordekidea:

Luis Villoldo Ortega jauna, Zuzenbidean lizentziatua.

– Batzordekidea:

Francisco Javier Santamaría Sandi jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

– Batzordekidea:

Mikel Latorre Guisasola jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

– Batzordekidea:

Francisco Javier González Mielgo jauna, Farmazian lizentziatua.

– Batzordekidea:

Manuel Zaballa Iñiguez jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

– Batzordekidea:

Susana Fernández Gallastegui andrea, Farmazian lizentziatua.

– Batzordekidea:

José Ramón Bilbao Catalá jauna, Biologian lizentziatua.

– Batzordekidea:

Francisco José Álvarez Díaz jauna, Biologian lizentziatua.

– Batzordekidea:

Paola Andrea Patiño Vega andrea, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

Hirugarrena.– Kontuan izanik jarraian zehazten den arloko osasun-baliabideen banaketa nahiz zentroetan Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoei dagozkien berezko zereginak betetzeko dauden bitarteko egokien baliagarritasuna, Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzordearen jarduera-eremu geografiko eta instituzionalean sartuko dira, hain zuzen, zentro bakar bateko saiakuntza klinikoak, zentro bakar batek baimena eman ondoren egindako behaketa-azterketak eta zentro bakar baten ikerketa-proiektuak, zehazki, honako zentro hauetan egingo direnak:

– Gurutzetako Ospitalea, Gorlizko Ospitalea eta Eloy Deuna Ospitalea.

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak Gurutzetako Ospitaleko eremu geografikoan dituen zentro guztiak, ospitalekoak zein ospitalez kanpokoak, baita lehen mailako arretakoak ere (Gorlizeko Ospitalea, Eloy Deuna Ospitalea, Uribe Kostako eta Ezkerraldea-Enkarterriko osasun-eskualdeak).

– Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) Bizkaiko Osasun Barrutian dituen zentroak.

Laugarrena.– Batzordeak Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzara igorri beharko ditu funtzionamendurako prestatutako lan-prozedura espezifikoak eta bileren maiztasunari eta zehaztu duen gehienezko erantzun-denborari buruzko informazioa, han jasotzeko, eta haien berri emateko.

Horrez gainera, indarrean dagoen legediari jarraikiz Osasun eta Kontsumo Ministeriora bidali behar dituen komunikazioak aurkeztu beharko ditu, izapidetzeko.

Bosgarrena.– Ebazpen honen helburu den akreditazioa indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta hiru urteko indarraldia izango du. Epe hori amaitzean, berritu egin ahal izango da, eskaera 1994ko irailaren 28ko

Aginduaren 6. artikuluan zehazten den moduan aurkeztuta. Osasun eta Kontsumo Ministerioari eman beharko zaio horren berri.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea, eta interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete honen aurka, Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordetzan edo Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariaren aurrean, ofizialki argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 16a.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendaria,
JOSÉ ASUA BATARRITA.